

0·16 STEM bokazioak inspiratzen automatizazioaren eta robotikaren bidez

01

Kurtsoa/Maila

- 4. DBH
- 1. Batxilergoa
- 2. Batxilergoa

Datak

2027 Otsaila - Ekaina

Ikaskuntza-arloak

Ingenieritza
Lanbide-orientazioa

Hizkuntza

Euskara, Gaztelania

Irismen geografikoa

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

Erreka

DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleek ikasgelan aurretik egindako lanketa baten ondoren, Erreka berrikuntza-plataformak Antzuolan (Gipuzkoa) dituen instalazioen zati bat bisitatzeko aukera eskainiko du, bertan lan egiten duten STEM arloko profesionalen egunerokoa gertutik ezagutzeko helburuarekin.

Irtenbide aurreratuen diseinuan, ingeniartzan eta fabrikagarritasun aurreratuan espezializatuta dago, hainbat sektoretarako, hala nola automobilgintza, osasuna, sarbideen kudeaketa, mugikortasuna, energia berriztagarriak, azpiegitura kritikoak, meatzaritza eta aeronautika, besteak beste. Ikasleek material polimerikoekin egindako fabrikazio-prozesu industrialak ezagutzeko aukera izango dute; lehengaia azken produktu bihurtzeko eman beharreko urratsak ikusiko dituzte. Era berean, benetako adibideak eta produktu fisikoak ezagutzeko aukera izango dute.

STEM Deskribatzaileak

STEM 2

STEM 3

STEM 5

STEM 6

Baliabideak

Baliabide materialak

Enpresak gaiari lotutako material akademikoa emango du, ikastetxeak enpresara joan aurretik lantzeko. Bideoa.

Baliabide ekonomikoak

Jarduera Antzuolako (Gipuzkoa) instalazioetan egingo da; beraz, ikasleen joan-etorri gastuak ikastetxearen kontura izango dira.

Informazio gehiago

erreka.com

0·16 STEM bokazioak inspiratzen automatizazioaren eta robotikaren bidez

02

GARAPENA

Prestaketa fasea

Irakaslea-profesionala: irakasleen artean aukeratutako pertsona enpresako profesionalarekin koordinatuko da, bisitaren aurreko lana egiteko lagungarri izango den ikus-entzunezko materiala trukatzeko.

Gutxi gorabeherako dedikazioa: ordubete

Aurretiko lana ikasgelan: ikasleek enpresara egingo duten bisita prestatuko dute; ikerketa labur bat egingo dute, informazio garrantzitsuena bilduz. Erakundearen testuingurua ezagutzeko bideo bat partekatuko zaie (zer den Erreka eta zein arlotan lan egiten duen). Ikusi ondoren, ikasleek KAHOOT galdetegi bat egingo dute, eta emaitzak ondorengo bisitan emango dira.

Gutxi gorabeherako dedikazioa: ordubete

Garatze fasea

Antzuolako jardunaldia hiru bloketan banatzen da:

Kultura eta berrikuntza (20 min): errekaren aurkezpen orokorra.

- Testuingurua: eredu kooperatiboari eta Errekaren bilakaerari buruzko hitzaldia. Teknologiaren erabiltzaile izatetik beren makina propioen diseinatzaile eta programatzaile izatera.
- Negozio-unitateak.
- Errekan lan egiten duten pertsonen profila.

Produkzioan murgiltzea(40 min): produkzio-plantara bisita gidatua, robotikan eta automatizazio industrialean arreta berezia jarriz.

- Diseinu, fabrikazio, kalitate, logistika eta abarretako prozesuak.
- Bisitan Produkzioko bi arduradunen testigantza egongo da (Senior bat eta Junior bat). Topaketa honek esperientzia sendotua eta ikasketak amaitu berri dituztenen lan-merkatuaren errealitatea alderatzeko aukera emango die ikasleei, STEM ibilbideetan egonkortasuna eta belaunaldi-erleboa ikusgarri eginez.
- Bisitaren ondoren, prestakuntza-gelara joango dira ondorio bateratua egiteko. Gainera, Kahoot-ean puntuaziorik onenak lortu dituzten ikasleei merchandisinga emango zaie.

Feedbacka eta amaiera (30 min):

errekarentzat garrantzitsua da parte hartu duten ikasleen iritzia ezagutzeko; horregatik, Produkzioan geratu diren zalantzak argitzeaz gain, post-itak emango dizkiete beren iritzia jasotzeko eta etorkizunean hobekuntzak txertatzeko.

Oharra: taldea 20 pertsonatik gorakoa bada, 2 talde egingo dira, produkzio-bisita eta aurkezpena txandakatuz.

Gutxi gorabeherako dedikazioa: ordu t'erdi

Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek ikasitakoa arazo-egoeran edo proiektuan aplikatuko dute eta jardue-ra baloratuko dute.

Gutxi gorabeherako dedikazioa: ordubete